



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko abenduaren 22a

50. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-23/MOC-00079. Erabakia, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita alda dezan anbulantziako osasun-garraioa probintzia arteko lekualdatzeetarako erabiltzeari buruzko jarraibidea. Osasun Batzordeak onetsi du (3. or.).
- 11-23/MOC-00084. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita arau-aldaketa puntuala egin dezan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan. Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordeak ezetsi du (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-23/POR-00270. Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko ginekologia zerbitzuko fakultatibo espezialisten bajak betetzeko abian jarri diren neurriei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (4. or.).
- 11-23/POR-00272. Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko ZIU itxi izanari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (5. or.).
- 11-23/POR-00279. Galdera, gripearean eta COVID-19aren aurkako txertoa jartzeko kanpainari buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (5. or.).
- 11-23/PES-00226. Galdera, ekintzailatza proiektuen merkataritza-kudeaketa babeste aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (6. or.).
- 11-23/PES-00227. Galdera, azken lau urteotan Nafarroan egon den haur pobreziari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (6. or.).
- 11-23/PES-00228. Galdera, haur pobreziak Nafarroan zenbat haur ukitu dituen jakiteko. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (7. or.).
- 11-23/PES-00229. Galdera, Nafarroako Gobernuak haur pobrezia dela-eta 2023an egindakoari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (7. or.).
- 11-23/PES-00230. Galdera, Nafarroan haur pobreziaren arazoa konpontzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (8. or.).

- 11-23/PES-00231. Galdera, García Orcoyen Ospitaleko erditzeen zerbitzua indartzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (8. or.).
- 11-23/PES-00232. Galdera, errenta bermatua izan baina enplegurako erabilgarri ez dauden pertsonen buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (9. or.).
- 11-23/PES-00233. Galdera, errenta bermatua izan baina enplegurako erabilgarri ez dauden pertsonen nazionalitateari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (9. or.).
- 11-23/PES-00234. Galdera, lagun egiteko animalien harrera-zentroen kudeaketa-ereduari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (10. or.).
- 11-23/PES-00235. Galdera, Nafarroako Gobernuak Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa-sistemari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (10. or.).
- 11-23/PES-00236. Galdera, Nafarroako Gobernuak Animaliak Babesteko Zentroan katurik ez jasotzeko arazoari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (11. or.).
- 11-23/PES-00237. Galdera, erregistratutako elkarte eta entitate laguntzaileek Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea betetzeari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (12. or.).
- 11-23/PES-00238. Galdera, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legeari buruzko herritarrendako gidari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (13. or.).
- 11-23/PES-00239. Galdera, 2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioa 4. neurriari buruzkoa (Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bitartez gazteen arloko politikak garatzeko behar besteko finantzaketa baten alde egitea). María Isabel García Malo andreak egin du (14. or.).
- 11-23/PES-00240. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeko ardura-dunari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (15. or.).
- 11-23/PES-00241. Galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea betetze aldera Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (15. or.).
- 11-23/PES-00242. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (16. or.).
- 11-23/PES-00243. Galdera, txosten soziometrikoei buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (16. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- PER20230062. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta A mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Akats zuzenketa (17. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2024ko lan egutegia (18. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren 2024ko ordutegi ofiziala (19. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lan egutegia eta Erregistroaren ordutegi aldatzea (19. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-23/MOC-00079. Erabakia, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita alda dezan anbulantziatzko osasun-garraioa probintzia arteko lekualdatzeetarako erabiltzeari buruzko jarraibidea**

*OSASUN BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak 2023ko abenduaren 20an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita alda dezan anbulantziatzko osasun-garraioa probintzia arteko lekualdatzeetarako erabiltzeari buruzko jarraibidea. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du probintzia arteko lekualdatzeetarako anbulantziatzko osasun-garraioa erabiltzeari buruzko jarraibidea alda dezan, kasuaren balorazio medikoa egin ondoren, aukera egon dadin laguntza-anbulantzia batean lekualdatzeko gure Foru Erkidegotik kanpo dauden eta Nafarroara itzuli nahi duten pazienteak".

Iruñean, 2023ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-23/MOC-00084. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita arau-aldaketa puntuala egin dezan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan**

*BARNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordeak, 2023ko abenduaren 20an egindako bilkuran, ezetsi du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita arau-aldaketa puntuala egin dezan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuan. Mozioa 2023ko azaroaren 28ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-23/POR-00270. Galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko ginekologia zerbitzuko fakultatibo espezialisten bajak betetzeko abian jarri diren neurriei buruzkoa**

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko ginekologia zerbitzuko fakultatibo espezialisten bajak betetzeko abian jarri diren neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer neurri jarri da abian García Orcoyen ospitaleko ginekologiako fakultatibo espezialisten bajak betetzeko?

Iruñean, 2023ko abenduaren 7an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-23/POR-00272. Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ZIU itxi izanari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ZIU itxi izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak batzordean ahoz erantzun dezan:

Zenbat aldiz itxi da 2023an Tuterako Reina Sofía ospitaleko Zainketa Intentsiboen Unitatea eta zer neurri jarri da abian itxiera ekiditeko?

Iruñean, 2023ko abenduaren 8an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-23/POR-00279. Galdera, gripearen eta COVID-19aren aurkako txertoa jartzeko kanpainari buruzkoa

MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, gripearen eta COVID-19aren aurkako txertoa jartzeko kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako biztanlerian gripeak nahiz COVID-19ak eragindako morbiditalitatea murrizteko xedez, immunizazio-kanpaina hasi zen pertsonaltalde kalteberenekin eta gripeak osasunean eragin handiena izan dezakeen taldeekin.

Urriaren 3an hasi zen mezuak bidaltzen txerto horietarako hitzordua emateko, eta beste autonomia-erkidego batzuetan immunizazio horri dago-kionez herritarrek duten erantzun eskasari buruz argitaratutako informazioak ikusita,

Zein dira gripearen eta COVID-19aren aurkako txertaketa-datuak Nafarroan 2023-2024ko denboraldian?

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

## **11-23/PES-00226. Galdera, ekintzailtza proiektuen merkataritza-kudeaketa babeste aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, ekintzailtza proiektuen merkataritza-kudeaketa babeste aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera aurkezten du Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak eta Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak idatziz erantzun dezaten:

Zer neurri jarri du abian Nafarroako Gobernuak, zehazki, ekintzailtza-proiektu baten kudeaketa komertziala hasieratik laguntzeko?

Iruñean, 2023ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **11-23/PES-00227. Galdera, azken lau urteotan Nafarroan egon den haur pobreziari buruzkoa**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, azken lau urteotan Nafarroan egon den haur pobreziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein izan da haur-pobreziaren bilakaera Nafarroan azken 4 urteetan?

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## **11-23/PES-00228. Galdera, haur pobrezia Nafarroan zenbat haur ukitu dituen jakiteko**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, haur pobrezia Nafarroan zenbat haur ukitu dituen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Gaur egun Nafarroan haur-pobrezia ukitutako haurren kopurua.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

---

## **11-23/PES-00229. Galdera, Nafarroako Gobernuak haur pobrezia dela-eta 2023an egindakoari buruzkoa**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak haur pobrezia dela-eta 2023an egindakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer jarduketa egin du Gobernuak haur-pobrezia-riaren arloan 2023an?

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-23/PES-00230. Galdera, Nafarroan haur pobrezia-aren arazoa konpontzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroan haur pobrezia-aren arazoa konpontzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer jarduketa aurreikusten du Gobernuak Nafarroan haur-pobrezia-aren arazoa konpontzeko?

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-23/PES-00231. Galdera, García Orcoyen Ospitaleko erditzeen zerbitzua indartzeari buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, García Orcoyen Ospitaleko erditzeen zerbitzua indartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

García Orcoyen Ospitaleko erditzeen zerbitzua Nafarroako beste osasun-barruti batzuetako ginekologekin indartu da abenduaren hasierara arte, eta horri esker zerbitzua ematen jarraitu ahal izan du, baina lankidetzara hori abenduaren hasieran eten da. Zergatik?

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez



## 11-23/PES-00232. Galdera, errenta bermatua izan baina enplegurako erabilgarri ez dauden pertsonen buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, errenta bermatua izan baina enplegurako erabilgarri ez dauden pertsonen buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zergatik ez dago lanerako baliagarri 2022an errenta bermatua eskuratu zuten pertsonen erdia baino gehiago? Zehazki, 2.540 pertsona 4.952tik.

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-23/PES-00233. Galdera, errenta bermatua izan baina enplegurako erabilgarri ez dauden pertsonen nazionalitateei buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, errenta bermatua izan baina enplegurako erabilgarri ez dauden pertsonen nazionalitateei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein da errenta bermatua eskuratu zuten 4.952 pertsonen artean lanerako baliagarri ez dauden 2.450 pertsonen nazionalitatea?

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-23/PES-00234. Galdera, lagun egiteko animalien harrera-zentroen kudeaketa-ereduari buruzkoa

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, lagun egiteko animalien harrera-zentroen kudeaketa-ereduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean,

honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hauek dira azken lau urteetan bilketei eta adopzioei buruz emandako datuak, zentroz zentro:

a. Nafarroako Gobernuo Animaliak Babesteko Zentroa:

– Bilketak: 543 txakur

– Adopzioak: 560 txakur

b. Iruñeko Udaleko Animaliak Hartzeko zentroa:

– Bilketak: Txakurrak: 625. Katuak: 232

– Adopzioak: Txakurrak: 170. Katuak: 218

c. CCPAMR:

– Bilketak: Txakurrak: 792. Katuak: 265

– Adopzioak: Txakurrak: 308. Katuak: 90

Kudeaketa-eredurik aztertzen ari al da lagun egiteko animalien abegi-zentro guztietan aplikatzeko?

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## 11-23/PES-00235. Galdera, Nafarroako Gobernuo Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa-sistemari buruzkoa

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuo Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa-sistemari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

dutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hauek dira azken lau urteetan bilketei eta adopzioei buruz emandako datuak, zentroz zentro:

a. Nafarroako Gobernuko Animaliak Babesteko Zentroa:

- Bilketak: 543 txakur
- Adopzioak: 560 txakur

b. Iruñeko Udaleko Animaliak Hartzeko zentroa:

- Bilketak: Txakurrak: 625. Katuak: 232

– Adopzioak: Txakurrak: 170. Katuak: 218

c. CCPAMR:

- Bilketak: Txakurrak: 792. Katuak: 265
- Adopzioak: Txakurrak: 308. Katuak: 90

Zer kudeaketa-eredu du Nafarroako Gobernuko Animaliak Babesteko Zentroak adopzio-datu horiek edukitzeko?

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## 11-23/PES-00236. Galdera, Nafarroako Gobernuko Animaliak Babesteko Zentroan katurik ez jasotzeko arrazoari buruzkoa

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko Animaliak Babesteko Zentroan katurik ez jasotzeko arrazoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hauek dira azken lau urteetan bilketei eta adopzioei buruz emandako datuak, zentroz zentro:

a. Nafarroako Gobernuko Animaliak Babesteko Zentroa:

- Bilketak: 543 txakur
- Adopzioak: 560 txakur

b. Iruñeko Udaleko Animaliak Hartzeko zentroa:

- Bilketak: Txakurrak: 625. Katuak: 232
- Adopzioak: Txakurrak: 170. Katuak: 218

c. CCPAMR:

- Bilketak: Txakurrak: 792. Katuak: 265
- Adopzioak: Txakurrak: 308. Katuak: 90

Nafarroako Gobernuko Animaliak Babesteko Zentroak zergatik ez du katurik hartzen?

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## **11-23/PES-00237. Galdera, erregistratutako elkarte eta entitate laguntzaileek Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea betetzeari buruzkoa**

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, erregistratutako elkarte eta entitate laguntzaileek Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea betetzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer egin behar duzue edo nolako kudeaketa egiteko asmoa duzue erregistratutako elkarte eta entitate laguntzaileek Lagun egiteko animaliak babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea bete dezaten?

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## **11-23/PES-00238. Galdera, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legeari buruzko herritarrendako gidari buruzkoa**

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legeari buruzko herritarrendako gidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Lege nazionala eta Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea nola uztartzen diren informatzeko aldera Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak 2023ko azaroaren 8ko batzordean egindako agerraldian, agerian jarri zen herritarrendako gida erraz bat eratzeko beharra, elementu nagusiak eta herritarrak ukitzen dituzten eskumenak argitzeko.

Noiz taxutuko duzue gida hori, eta noiz egonen da herritarren eskura?

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## **11-23/PES-00239. Galdera, 2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordio 4. neurriari buruzkoa (Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bitartez gazteen arloko politikak garatzeko behar besteko finantzaketa baten alde egitea)**

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, 2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordio 4. neurriari buruzkoa (Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bitartez gazteen arloko politikak garatzeko behar besteko finantzaketa baten alde egitea).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera aurkezten du lehendakariorde eta E-txebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta plural baterako programa-akordioak gazteriaren arloko honako neurri hau jasotzen du:

**4.** Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bitartez gazteen arloko politikak garatzeko behar besteko finantzaketa baten alde egitea.

Nafarroako Gobernuaren ustez, zer da behar besteko finantzaketa? Zehaztu aurreikusten diren diru-kopuruak, urteka.

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **11-23/PES-00240. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeko arduradunari buruzkoa**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeko arduradunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nor da Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzearen arduraduna?

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

## **11-23/PES-00241. Galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea betetze aldera Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeari buruzkoa**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea betetze aldera Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea behar bezala betetzeko, noiz eguneratuko da erabat Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea?

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-23/PES-00242. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zergatik ez da eguneratu hainbat hilabetetan Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea, eta, adibidez, gaur egun oraindik ere Cigudosa jaunaren agur instituzional bat ageri da, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren lehendakari gisa eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari gisa, kontuan hartuta 2023ko abuztuaren 30etik ez duela kargu hori betetzen?

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-23/PES-00243. Galdera, txosten soziometrikoei buruzkoa

*MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak egindako galdera, txosten soziometrikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako María Jesús Valdemoros andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Kontuan hartuta Nafarroako Zerga Ogasunak argitaratutako azken soziometrikoa duela 4 urtekoa dela, hauxe galdetzen dut: Egin al da soziometriko eguneratuagorik? Halakorik egin ez bada, noiz egingen eta argitaratuko duzue?

Iruñean, 2023ko abenduaren 14an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**PER20230062. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta A mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko**

**AKATS ZUZENKETA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak txostena aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko (funtzionario-araubidekoak eta A mailakoa) deialdian akatsa hauteman delako. Deialdi hori Mahaiak 2023ko azaroaren 27an hartutako erabaki baten bidez onetsi zen, eta erabakia Parlamentuaren webgunean eta Parlamentuaren nahiz Nafarroako aldizkari ofizialetan eman zen argitara (2023ko abenduaren 14ko 47. NPAO eta 2023ko abenduaren 14ko 258. NAO).

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta A mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren 7.3.4. oinarrian hautemandako akatsaren zuzenketa onestea. Hartara:

"Ariketen edukia deialdiko III. eranskinean ageri diren gaiei loturik egonen da" dioen lekuan

honako hau jarriko du: "Ariketen edukia deialdiko IV. eranskinean ageri diren gaiei loturik egonen da".

2. Deialdiaren 7.3.4. oinarrian hautemandako akatsaren zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2024ko lan egutegia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak aurkeztutako proposamena, zeinarekin bat baitator Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordea, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileentzako 2024ko aste bitarteko jaiegunen eta lanekoak ez direnen egutegia. Honako hau da:

– Uztailaren 8a, 9a, 10a, 11 eta 12a: lanekoak ez diren egunak, sanferminak direla-eta.

– Azaroaren 29a: San Saturnino jaieguna.

– Lanekoak ez diren egunak: uztailaren 26a, abuztuaren 16a eta abenduaren 2a, 24a eta 31.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko Administrazioarako oro har ezarritakoak (2023ko ekainaren 23ko 132. NAO). Hona:

– Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.

– Urtarrilaren 6a: Errege eguna.

– Martxoaren 28a. Ostegun Santua.

– Martxoaren 29a. Ostiral Santua.

– Apirilaren 1a: Pazko astelehena.

– Maiatzaren 1a: Langileen Eguna.

– Uztailaren 25a: Santiago Eguna.

– Abuztuaren 15a: Ama Birjinaren Jasokundea.

– Urriaren 12a: Espainiako Jai Nazionala.

– Azaroaren 1a: Domu Santu eguna.

– Abenduaren 3a. San Frantzisko Xabierkoa.

– Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna.

– Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

**2.** Ohiko lanaldia gaur egun indarra duen berbera izanen da; hots, eguneko 7 ordu eta 30 minutukoa, astelehenetik ostiralera, salbu eta urtarrilaren 2tik 5era, egun horietan lanaldia 6 ordukoa izanen baita.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00etatik 15:00etara bitartekoa.

Beti ere, egunean 6 ordu eta 30 minutuko lanaldia egin beharko da.

**3.** Laneko txandak gaur egun indarreko berberak izanen dira, langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

1) Goiz eta arratsaldeko txanda.

Langileek astean behin izanen dute txanda hau, Legebiltzarraren beharrezanek horretarako modua emanez gero, eta gehienez ere astean bi aldiz. Zerbitzburuei dagokie txanda zehaztea.

Ordutegia 08:45etik 17:30era bitartekoa izanen da, bazkarirako ordu eta laurdeneko atsedendaldi bat barne, zeina 15:00ak baino lehenago egin beharko baita. Ordutegi-malgutasuna 09.15era bitartekoa izanen da sartzeko, eta 18:00etara bitartekoa ateratzeko, Legebiltzarraren beharrezanek horretarako modua emanez gero.

2) Goizeko txanda jarraitua.

Txanda hori gainerako astegunetan egingen dute langileek.

Ordutegia 07:30etik 15:00etara bitartekoa izanen da, sartzeko 09:30era bitarteko ordutegi-malgutasunarekin eta irteteko 17:00etara bitartekoarekin, Legebiltzarraren beharrezanek horretarako modua emanez gero.

3) Arratsaldeko txanda jarraitua edo goiz eta arratsaldeko txanda.

17:30etik aurrera egiten diren parlamentuz kanpoko ekitaldietarako, Mahaiak erabakiko du, zerbitzburuek proposaturik, zer langilek egon behar duten nahitaez, eta hori zehaztea zerbitzburuei dagokie.

Langile horiek zilegi izanen dute 7:30 orduko arratsaldeko txanda jarraia egitea —ekitaldia zer ordutan bukatzea aurreikusten den, orduan bukatuko dena—, edo goiz eta arratsaldeko txanda bat, iraupen eta bukaera-ordu horiek berak izanen dituena. Bukaera-ordua ezin izanen da 19:30etik haragokoa izan.

**4.** Urteko 1.560 lanorduen kopurua lortze aldera, langileek erabilera libreko ordu erdi bat hartu ahal izanen dute 2024. urtean zehar.

**5.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren 2024ko ordutegi ofiziala

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileentzako 2024ko lan-egutegiaren proposamena, Zerbitzu Orokorrerako buruak aurkeztua, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 118. artikulua ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Ezartzea honako hau izanen dela Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2024. urterako:

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian:

– Astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 14:00etara.

– Uztailaren 8an, 9an, 10ean, 11n, 12an eta 26an eta abuztuaren 16an itxita egonen da, eta baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

Urtarrilaren 2tik ekainaren 30era, irailaren bigarren hamabostaldian eta urritik abendura bitartean:

– Urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean: 09:00etatik 14:00etara.

– Urtarrilaren 8tik aurrera, astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 17:30era; eta ostiraletan, 09:00etatik 14:30era.

– Abenduaren 2an, 24an eta 31n itxita egonen da, eta egun horiek baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

**2.** Baliogabeak izanen dira, halaber, larunbat, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## Nafarroako Parlamentuko lan egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko abenduaren 18an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak erabaki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2023ko abenduaren 11koa, non eskatzen baitu goizeko lanaldia ezartzea 2023ko abenduaren 26an, 27an, 28an eta 29an, eta 2024ko urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean.

Kontuan izanik aipatu lan-asteetan ez dagoela aurreikusita arratsaldeko parlamentu-jarduerarik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluaekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Mahaiaren 2022ko azaroaren 21eko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea;

halatan, lanaldia goizekoa izanen da 2023ko abenduaren 26an, 27an, 28an, eta 29an, eta 2024ko urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean, betiere zerbitzuen beharrianek horretarako bidea ematen badute.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2022ko azaroaren 21eko erabakiaren bidez onetsitakoa, aldatzea; halatan, 2023ko abenduaren 26an, 27an, 28an eta 29an, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

